



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 12a

35. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru lege proposamena, uztailearen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Next Generation Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—Interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Europako Proiektuen Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).

—Interpelazioa, osasun-azpiegituretako inbertsioen arloko politikei buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztu du (6. or.).

—Interpelazioa, kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da errepideetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezzen. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuako Kirolaren Institutua premiatzen da estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (10. or.).

- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekiko nahiz kirol-talde pribatuekiko hitzarmenak ezar ditzan, kirol-instalazioen erabilera eta gozamena efizientzia-, jasangarritasun- eta kolaborazio-ikuskeraz egin daitezzen. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrianak eta eskariak ezagutzeko. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol instalazioen mapa bat taxutu dezan, instalazio horiek dituzten beharrianak, alternatibak eta hobekuntza-plan bat garatzeko aukerak aztertzeko. Mozioa erretiratzea (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez, Nafarroako Parlamentuak, Emakumearen Nazioarteko Eguna-ren kariatara, bititza-jasangarritasuna politika publikoen erdigunean jartzearen aldeko apustua egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (15. or.).

**F SAILA:****Galderak:**

- Galdera, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, “ikasleen pisuak” deiturikoei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, “España Puede” planari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketarako birfinantzatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obren betetzea dela-eta INTIAK egindako dokumentuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (21. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea (22. or.).
- Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat banku-fundazioa izateari uzten dionean arau-egokiena zein izan den aztertzeko Ponentzia. Barne-funtzionamendurako arauak (23. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru lege proposamena, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Adolfo Araiz Flamarique jaunak foru lege proposamen bat aurkeztu du, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa, eta eskatu du irakurketa bakarrean izapidetu dadila (10-21/PRO-00004).

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzeko Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Foru lege proposamen hori irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru lege proposamena, uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua aldatzekoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Urriaren 5eko 15/2018 Errege Lege-dekretua onesteak, energia-trantsiziorako eta kontsumitzaileen babeserako neurri urgenteei buruzkoak, ekarri du autokontsumoa suspertzen hastea, batik bat amaierako kontsumitzaile diren pertsonen artean.

Energia-trantsizioa egitearen aldeko apustua ezinbestekoa eta urgentea da.

Premisa horretatik abiatuta, eta elektrizitate-merkatuko prezio-igoeraren egungo testuinguruan, elektrizitate-autokontsumoberriztagarria ezinbesteko elementua da kokontsumitzaileak energia garbiagoa eta merkeagoa eskuratzea lortzeko.

Aipatu lege-dekretua onetsi arte, autokontsumo-jarduna ozta-ozta zegoen zabalitzen hasia, oztopo jakin batzuk bazeuden-eta, jarduera hori zailtzen, pizgarrigabetzen edo ekonomikoki bideraezin egiten zutenak. Oztopo horietako bat gisa identifikatu da udal obra-lizentzia bat eskuratzeko administrazio-baimenaren izapidetzea nahitaezkoztat galdatzea, horrek izapidea astundu egin baitu epe oso luzeekin, autokontsumorako instalazio fotovoltaiakoen ezarpen egokia behatzen dutenak.

Autokontsumo berriztagarriaren ezarpenak energia-faktura berehalakoan jaisteko modua emanen die autokontsumo hori instalatzen duten kontsumitzaileak, eta, gainera, handizkako merkatutik energia-eskaria murriztuko da, halatan ekar-

pena eginez handizkako elektrizitate-merkatuan prezioak beren horretan eusteari bai eta jaisteari ere, ingurumen-egoera hobetzeari eta hidrokarburo-inportazioa murrizteari, halatan pagamendu-balantzari mesede eginez.

Autonomi erkidegoek onetsitako araudi ezberdinek autokontsumorakoak diren honelako energia-ekoizpeneko instalazioetarako obra-lizentzia lortu behar hori bertan behera utzi dute pixkanaka, eta izapñide horren ordez behgartzten dute dela aurretiazko jakinarazpena egitera, dela erantzukizunpeko jakinarazpena egitera behin instalazioa paratu eta gero. Legegintzazko erreformen testuinguru horren argipean ikus daitezke Balear Uharteetako 12/2017 Legea, abenduaren 29koa, Hirigintzako, Extremadurako 11/2018 Legea, abenduaren 21ekoa, Lurralde- eta Hirigintza-antolamendu jasangarriari buruzkoa, azaroaren 26ko 16/2019 Lege-dekretua, Larrialdi klimatikorako neurri urgenteak hartu eta energia berriztagarrii bultzada ematekoa, martxoaren 9ko 2/2020 Lege-dekretua, Andaluziako ekoizte-jarduna sustatzeko araubidea hobetu eta sinpletzekoa, edo berriagoa den Aragoiko 1/2021 legea, otsailaren 11koa, sinplifikazio administratibokoa.

Nafarroaren kasuan, interpretazio juridiko desberdinak izan dira Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 192. artikulua arautzen duenaz; izan ere, 1. apartatuko e) letrak "obra txikiak" aipatzen ditu, eta udal ordenantzak ziren kontzeptu hori zehazten zutenak, bai eta azaltzen zutenak ere ea obra horietan sartzen ote zen autokontsumorako eguzki-plaka termiko edo fotovoltaikoen instalazioa. Horregatik gertatzen da ezinbesteko, hain zuzen, foru lege proposamen honen bidez egiten den aldaketa, xedetzat duena argi uztea eguzki-ener-

giaren autokontsumorako tankera honetako instalazioek ez dutela beharko aurretiaz udal obra-lizentzia lortzea, baizik eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko jakinarazpena egitera behartzen dutela. Zenbait salbuespen ezartzen dira; halatan, obra-lizentzia hori beharrezkoa izan da instalazioak kultur intereseko ondasun edo ondasun katalogatu gisa deklaraturiko eraikinetan egitekoak izan, eraikinaren zimenduetan edo egituraren eragiten dutenean eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar dutenean, aplikatzekoa den ingurumen-araudiaren arabera.

**Artikulu bakarra.** Aldatu egiten da Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategineko 192. artikulua, horri g) letra berri bat gehiturik 1. apartatuan, honako testu hau duena:

"g) Eguzki-energia aprobetxatzeko autokontsumorako instalazioak, eraikin edo egituren nahiz aparkaleku-pergolen gainean paratuak, potentzi mugarik gabe. Honako instalazio hauek ez dira araubide horretara lotuta egonen:

– Kultura-intereseko ondasun edo ondasun katalogatu gisa deklaraturiko erakinetan eginak direnak.

– Eraikinaren zimenduei edo egiturari eragiten dietenak.

– Ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar dutenak, aplikatzekoa den ingurumen-araubidearen arabera".

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Next Generation Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.**

### *GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Next Generation Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Nafarroako Gobernuak Next Generation Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **Interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Europako Proiektuen Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.**

### *GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Geroa Bai talde parlamentarioak aurkezturiko interpelazioa, Europako funtsen kudeaketaren arloan Europako Proiektuen Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

**2.** Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Interpelazioa, Europako funtsen arloan Nafarroako Gobernuak Europako Proiektuen Bulegoak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

## **Interpelazioa, osasun-azpiegituretako inbertsioen arloko politikei buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko interpelazioa, osasun-azpiegituretako inbertsioen arloko politikei buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Gobernuari, Nafarroako Gobernuak osasun-azpiegituren arloko inbertsioetan legegintzaldi honetarako daukan planari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Osasunaren arloko inbertsioak funtsezkoak dira osasun-laguntza kalitatezkoa, eskuragarria eta gizalegezkoa izan dadin eta pazientearen segurtasuna berma dadin. Nafarroako Gobernuak osasunaren arloko inbertsioetan darabilen politika ezagutu nahi dugu.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Interpelazioa, kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko interpelazioa, kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, interpelazio hau aurkezten du:

Kulturaren sektorea izan da pandemiak gogoren kolpatu dituenetako bat. Murrizketek, ikuskinak bertan behera utzi izanak eta aforo-mugek kalte larria egin diete nazio osoko kultur programazioari eta jarduerari, bai eta, noski, foru erkidegokoari ere.

Hori dela-eta, etorkizun itxaropentsu bat eskaini behar zaio milaka langile eta enpleguko sektore horri, egun kinka larrian baitago. Ahalegina, halaber, kultur programazio erakargarri, moderno eta segurua berreskuratzerantz bideratu behar da, beren bizitza pertsonal eta profesionala jakintzaren, entretenimenduaren eta artearen alde jartzen duten sektoreko eragile guztiak aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak kultur programazioaren arloan darabilen politika orokorrari buruzko honako interpelazio hau aurkezten du Navarra Suma talde parlamentarioak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko.**

### *IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita foru lege proiektu bat aurkez dezan, Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Azken hogeitun zerga ezberdinen diru-bilketak bilakaera larria izan du, desoreka gogorra

sortzeraino, lan-errenten kalterako eta enpresa-etekinen mesede oso handirako.

PFEZaren diru-bilketa igaro da 2000n diru-sarrera publiko guztien % 29,7 izatetik 2020an % 42,4 izatera. Sozietateen gaineko zergaren diru-bilketa, berriz, 2000n guztizkoaren % 13,4 izatetik igaro da 2020an bakarrik % 7,2 izatera.

Hogei urte horietan, PFEZagatiko diru-bilketa 2000ko 629,6 milioietatik 2020ko 1.527,8etara igo da. Alabaina, Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa, ez igo ez ezik, are jaitsi ere egin zen, 2000ko 285 milioietatik 2020ko 260,3 milioietara.

Diru-bilketa fiskalari PFEZaren bidetik eginiko ekarpenaren (gehiena, lan errentak) eta Sozietateen gaineko Zergaren bidetik (enpresa-etekinak) egindakoaren arteko desoreka gero eta handiagoa, bere horretantxe, bidegabekeria fiskal agerikerikoa da.

Hori dela-eta, Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak honako erabaki-proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gehienez ere sei hilabeteko epean foru lege proiektu bat aurkez dezan Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko, zerga horren gaur egungo tributazio baxuegia zuzentzearen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Eleduna: Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da errepedetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan.**

### *JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita errepedetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, batzordean eztabaidatzeko. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da errepideetako inbertsioei buruzko ekintza-plan urgente bat taxutu dezan.

Mugikortasuna herritarren eskubide bat da, despopulazioaren aurka borrokatzeko modu bat, gizarte-kohesioeko elementu bat ez dadin lurralderik giblean gera eta gizarte-jasangarritasuneko elementu bat.

Nafarroako Errepide Sareak egitura erradiala dauka: erdigunea Iruñerrian dago, 3.821 kilometro dauzka guztira –horietatik, 418 edukiera handiko errepideak dira, eta 3.403, berriz, errepide arruntak–, eta haren ondare-balioa 4.540 milioi euro ingurukoa da.

Nafarroan kalitatezko errepideen sarea izan ohi dugu, zenbait adierazle objektiboren arabera nazioko nahiz nazioartekoekin alderatuz gero orain dela zenbait urte erdi-goialdean egon izanak erakusten duenez. Halere, gabeziak gero eta handiagoak dira urtez urte, eta azpiegitura ororen kasuan gertatzen den moduan, beti bideratu behar dira baliabideak horiek zaindu eta hobetzeko.

Aurrekontu-zuzkidura gutxituz joan da, halako moduan non zainketa nahiz obra berriak gutxitu egin baitira. Errepideen kontserbaziora bideratutako aurrekontua egokia ote den ezartzeko erabiltzen den adierazleetako bat da kontserbatu beharreko azpiegituren ondare-balioarekiko zer

portzentaje erabiltzen den horretarako. Portzentaje hori sarearen ondare-balioaren % 2tik % 3ra bitartekoa da.

Baremo horren arabera, Nafarroak 90,8 milioi euro bideratu beharko lituzke urtero errepideak zaintzera; Herri-Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren kalkuluen arabera, berriz, 72 milioi euro bideratzen dira horretara urtero.

Sarea hobetzeko beste jarduketa batzuk ere egin beharra dago, kalitatezko zerbitzuak modernizatzeko eta salgaien garraioa sustatzeko, arlo horretan atzeratuta goaz-eta. Inbertsioa beharrezkoa da, halaber, mugikortasuna aldeztu eta baliabideak optimizatzen lagun dezaketen teknologia berriak aplikatzeko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Ekintza-plan urgente bat taxutu dezan –sei urtean egitekoa eta 90 milioi eurokoa–, zenbait jarduketa jasoko dituen errepideetako bide-zorua hobetzeko, sarearen kontserbazio arrunterako, bide-zorua sendotzeko eta seinaleztapen bertikalen, horizontalen eta hesien mantentze-lanetarako.

2. Errepideei buruzko plan estrategiko bat taxutu dezan, aurreikuspenak, helburuak eta lehentasunak ezarri eta azpiegitura horien etorkizuna planifikatuko duena.

Iruñean, 2021eko otsailaren 26an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez



## **Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezten.**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko Legean nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– bete daitezten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Sekretu ofizialei buruz indarrean dagoen legea –apirilaren 5eko 9/1968 Legea– frankismoaren garaikoa da. Gero, artean konstituzio-aurreko garaian, hein batean aldatu zen urriaren 7ko 4/1978 Legearen bitartez.

Estatuaren segurtasunaren eta defentsaren izenean, lege horren babesean gorde dira, eta gordetzen dira oraindik ere, zalantzarik gabe eta nazioarteko parametroen arabera klasifikatuta egon beharko ez lirakeen informazioak.

Estatuaren segurtasuna eta defentsa konstituzioaren bidez babestutako balioak dira, eta Estatuaren Gobernuari dagokio horiek zaintzea, Estatuari eragiten dioten gaietarako sarbidea eragotziz herritarrei. Balio eta zaintza hori, ordea, ez da erabatekoa. Aitzitik, parametro demokratikoei erreparaturaz gero, Espainiako Erresuman formalki baino

ez bada ere 1978az gero konstituzioaren bidez babestutako beste balio eta printzipio batzuekin adostu beharrekoa da balio hori.

Lege horren bidez eragotzi egin da munduko herrialde gehienetako legeen babesean jendaurrekoa izanen beharko lukeen informazioa ezagutzeari. Sekretu ofizialei buruz indarrean dagoen legeak ez du jasotzen eta aintzat hartzen informazio klasifikatuari eskatzen zaion test hirukoitza –legezkotasuna, proportzionaltasuna eta premia–, ez du sailkatze-epetik jasotzen –hartara, informazioa betiko izan daiteke sekretua– eta ez du prozedura argirik informazio juridikoa klasifikatzeko eta desklasifikatzeko, ez eta beste auzi batzuk ere, baldin eta begiratzen badiogu hizkera ambiguo bat erabiltzeari edo aipamena egiteari zenbait erakunde direla-eta, une honetan ulertezinak direnak.

Argitaratu zenetik 53 urte eta aldatu zenetik 43 urte iragan eta gero, beharrezkoa da lege hori gaur egungo sentiberatasun sozialera egokitzea gure gizartea oinarritzen eta eraentzen duen printzipio demokratikoak berezkoa duen gardentasunaren balioari dagokionez, bai eta egungo erakundeek egokitzea ere. Hortaz, beharrezkoa da gai bat sekretutzat edo erreserbatutzat klasifikatzen bada –lege honek izen hori ematen die–, horrek indarraldi jakin bat izan dezan, AEBetako, Erresuma Batuko, Alemaniako edo Suitzako legedietan egiten den moduan.

Besteak beste, beharrezkoa da erakunde militarrek ez dezaten inolaz ere erabaki zer informazio den gai klasifikatua eta Konstituzioaren 97. artikuluan ezarritakoarekin bat Ministroen Kontseilua eta ez beste inor izan dadin gai bat klasifikatzen edo desklasifikatzen duena; hartara, bukatu egingen da gaur egungo egoera, non Gobernuaren Lehendakariak, Kanpo Arazoetarako Ministerioak, Defentsakoak, Barne Ministerioak, Justiziakoak, Industriakoak eta beste agentzia batzuek sekretutzat klasifika baitezakete dokumentu bat, halako moduan non une honetan sekretutzat klasifikatuta baitaude dokumentu militar gehienak, harreman diplomatikoetakoak, terrorismoaren aurkako borrokakoak edo gastu erreserbatuetakoak; horietako asko, Ministroen Kontseilutik pasatu ere egin gabe.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko orori Estatuaren jardunari dagokionez eskatzen zaion gardentasunaren arloan, zeina beharrezkoa baita –horretarako dauzkagu gardentasun legeak–, Sekretuei buruzko egungo legeak mugatu eta murriztu egiten du informazioa eskuratzeko eskubidea, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituneko 19.2 artikuluan jasota dagoen adierazpen eta iritzi askatasunaren giza eskubidearen parte dena.

Eskubide hori murriztuta dago etorkizuneko eta gaur egungo informazioei dagokienez edo gure giza eskubideekiko errespetuarekin eta babesarekin lotutako informazioei dagokienez eta gure gizartearen etorkizuna uki dezaketan informazioei dagokienez.

Higiene demokratikoagatik, nahitaezkoa da desklasifikazioa. Desklasifikazioak, Amnistia Internazionalak jasotzen duen legez, etorkizunean giza eskubideak urratzea saihesten du; giza eskubideen urraketen ikerketan sakontzen du; biktimek egia, justizia eta erreparazioa jasotzeko eskubidea dutela bermatzen du, eta berriro ez gertatzeko bermea ematen du.

Sekretu ofizialei buruzko lege honetatik atera beharreko gertakariak dira iraganeko zenbait gertakari; besteak beste, Estatuak diktadura frankistan eta trantsizioan izandako jokabideak, 1981eko otsailaren 23ko gertakariak, 1985eko azaroan Mikel Zabalza desagertu eta hil izana edo GALen erailketak. Hainbeste urte igaro eta gero, kasu horiek ezin dute isiltasunaren eta zigorgabetasunaren estalpean jarraitu. Gizarteak zer gertatu zen jakin behar du.

Horregatik guztiagatik, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari premiatzen du egin beharreko lege aldaketak egin ditzan, Sekretu ofizialei buruzko Legean estatu demokratiko bati eskatzekoak zaizkion nazioarteko parametroak –gardentasuna, proportzionaltasuna eta premia– nahiz informazioa jasotzeko eskubidea –gizartearen oinarriko eskubidea baita– bete daitezela, Estatuak izandako jokabideei dagokienez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 3an

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernuako Kirolaren Institutua premiatzen da estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuako Kirolaren Institutua premiatzen baita estatutuak, arauak eta

erregelamenduak hizkera inklusibora egokitu ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatzeko. Haren bidez Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kirolaren Institutua premiatzen da Foru Komunitateko kirol federazioekin lan egin dezan, estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusiboan idatzita egon daitezen.

Hizkera ez-sexista erabiltzea zuzentasun politikotik harago iristen da. UNESCOk, 1999an, gida bat argitaratu zuen: "Erabilera ez-sexista baterako gomendioak", non berretsi egiten baitu hizkuntza ez dela "giza adimenaren sormen arbitrario bat, baizik eta ekoizpen sozial eta historiko bat, errealitateaz daukagun pertzepzioan eragiten duena. Hizkuntzak emakumeei buruz transmititzen dituen aurreiritzi sexistak emakumeei belaunaldi belaunaldi esleitutako eginkizun sozialaren isla dira". Hortaz, hizkuntzak berealdiko eragina du jarreretan, portaeran eta pertzepzioetan. Europako Parlamentuak erabat babeste du, erakunde gisa, genero-berdintasunaren printzipioa, eta erabiltzen duen hizkerak, horrenbestez, horren isla izan behar du.

Azken urteotan, Emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa onetsi zenez geroztik, aurrerabide handiak gertatzen ari dira gizartearen nahiz legediaren esparruetan gizonen eta emakumeen arteko aukera eta tratu berdintasuna egiazkoa eta eragingarria izatea lortzeko.

Kirolari buruzko beste gida berriazko batzuetan ere aurki ditzakegu gisakoak: "Komunikazio inklusiboa eta ez-sexista. Ahozko nahiz idatzizko hizkuntza bisual bat erabiltzea, gizonak nahiz emakumeak ikusarazten dituena. Irudiek eta hitzek aniztasuna eta askotarikotasuna islatu behar dituzte kirolean. Emakumeei buruz ematen den irudiak egokia izan behar du, eta ekidin egin behar dira gizarte-rol estereotipatuak eta emakumeak objektu sexual gisa agertzea" (Kirolaren Kontseilu Nagusiaren eta Nafarroako Kirolaren Institutuaren "Kirol federazioen kudeaketan berdintasuna jasotzeko gida"ren 20. orrialdea).

Halaber, Emakumearen Institutuaren "Maskulinoz eta femeninoz hitz egiten dugu kirolaz" argitalpenaren 32. orrialdean honela definitzen da adierazpide sexista zer den:

"Maskulinoa erabiltzea emakumez eta ginez osatutako taldeak ikusarazteko".

Hizkuntza eta irakurketa giza komunikazioaren tresnak dira, pentsamenduarekin eta bizitza sozialarekin zeharo lotuta daudenak.

Herentzia linguistikoagatik eta ohituragatik, sarri, ez dugu hizkuntza modu egokian erabiltzen gizonari eta emakumeei hitz egiteko. Hizkera sexista da hitz egitean edo idaztean gramatikalki islatua ageri ez den kolektibo batekiko nolabaiteko diskriminazioa egiten duena.

Gure erkidegoan, arbitroek aktak idazten dituztenean beti erabiltzen dute maskulinoa; esate baterako, gaztelaniaz beti jartzen dute "jugador", nahiz eta futbola berdina izan pertsona guztientzat eta errespetu berarekin tratatu behar den jokalaria, gizonetzkoa ala emakumezkoa izan. Bi urte baino gehiago daramagu hori eskatzen, eta beti esaten zaigu egin eginen dela, baina gaur, oraindik ere, ez da ez egin ez eta arautu ere.

Koherenteak izan behar dugu pertsonari aipamena egitean: lanbidea edo jarduera dela-eta gizonetzkoa bat aipatzen denean, gaztelaniaz "jugador, entrenador, delegado de equipo, árbitro..." esaten badugu, emakumezkoa bat aipatzean "jugadora, entrenadora, delegada de equipo, árbitra..." esan beharko genuke.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez kirol-federazioekin lankidetzan jardun eta babestu ditzan:

– Berdintasunaren aldeko egiazko konpromiso bat lortze aldera jokaturako partidetak aktetan, halako moduan non emakumezko jokalariek femeninoz izendatuko baitira gaztelaniaz.

– Arbitroek –kirol-diziplinetako (futbola, esku-baloia, saskibaloia...) partidetak aktak idazteko ardura haiena baita– pertsona bat aipatzen dute-nean haren generoa zehatz dezaten gaztelaniaz, hartara identifikatuta sentituko baitira emakumezkoen ekipoak eta taldeak, hizkera egokiena erabiliko baitute hartara.

– Estatutuak, arauak eta erregelamenduak hizkera inklusiboan idatzita egon daitezen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Ana Ansa Ascunce, Maiorga Ramírez Erro, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

**Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekiko nahiz kirol-talde pribatuekiko hitzarmenak ezar ditzan, kirol-instalazioen erabilera eta gozamena efizientzia-, jasangarritasun- eta kolaborazio-ikuskeraz egin daitezen.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita toki entitateekiko nahiz kirol-talde pribatuekiko hitzarmenak ezar ditzan, kirol-instalazioen erabilera eta gozamena efizientzia-, jasangarritasun- eta kolaborazio-ikuskeraz egin daitezen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen dugun talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toki entitateekiko nahiz kirol-talde pribatuekiko hitzarmenak ezar ditzan, kirol-instalazioen erabilera eta gozamena efizientzia-, jasangarritasun- eta kolaborazio-ikuskeraz egin daitezen.

Gaur egungo gizartean, kirol jarduera herritar guztien ongizaterako oinarritzeko elementutzat jotzen da. Funtsezkoa da gazteenentzat; izan ere, ohitura osasungarrietan eta errespetu- eta talde-lanean oinarritutako balioetan hezteko ahalbidetzen du besteak beste. Eta beste horrenbeste adinean aurrera egindakoentzat, gaixotasunak prebenitzeko eta beste batzuk arintzeko balio duen zahartze aktiboa ahalbidetzen duelako.

Esandakotik harago, alabaina, kirol jarduera bizimodu bihurtzen da gizarteko beste sektore ba-

tzuentzat, eta horrek Nafarroaren izena goi-goian jartzeko balio du kirol-mota batzuen kasuan, bai Espainian bai nazioartean.

Maitane Melero, Juan Peralta, Iosu Goñi, Quijara anaiak... beren biziaren kirol modalitate batean ematen duten eta kirol federazioak lana oso ondo egiten ari direla erakusten duten kirolari guztien ordezkariak baino ez dira.

Halere, Nafarroako Foru Komunitateko kirol instalazioak narriatuta daude urte batzuetatik hona, eta horrek zaildu egiten du horietan kirola egin ahal izatea.

Hortik heldu dira kirol federazioek –esaterako, Nafarroako Atletismo Federazioak, Igeriketa Federazioak edo Beisbol eta Softbol Federazioak– egindako errebindikazioak.

Eta udal jakin batzuk ere ari dira erreklamatzeko kirol instalazioak zaintzeko eta hobetzeko laguntzak.

Baina gabeziak dituzten azpiegituren zerrenda amaigabea ikusita, azpiegitura horien analisi sakona egin beharra dago. Nafarroako Gobernuak kirol instalazioen errolda egin ondoren, aditza emanen dizkigu informazioa eta lehentasunak, beharrezanetan eta azpiegiturretan esku hartzeari begira.

Baina kirol azpiegituren pan hori taxutzen den bitartean, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren Institutuaren bidez, Nafarroako kirolarientzat kirola baldintzarik onenetan egiteko alternatibak eta irtenbideak bilatzeko beharra eduki beharko du gogoan.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Toki entitateekiko nahiz kirol-talde pribatuekiko hitzarmenak ezartzea, kirol-instalazioen erabilera eta gozamena efizientzia-, jasangarritasun- eta kolaborazio-ikuskeraz egin daitezen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentariak: Carlos Mena Blasco, Mikel Asiain Torres eta Mikel Buil García

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrizanak eta eskariak ezagutzeko.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua premiatzen da azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrizanak eta eskariak ezagutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nazio Batuen adindunen aldeko printzipioak Nazio Batuen 1991ko abenduaren 16ko Biltzar Nagusian (46/91 Ebazpena) onetsi ziren. Aipatu ebazpenean jasotzen da garrantzizkoa dela pertsona horien independentzia, parte hartzea, zaintza, norbere burua errealizatzea eta duintasuna bermatzea.

Adindunen kolektiboa zabala eta anitza da, baina baditu berezitasun zehatzak, aintzat hartu beharrekoak. Ikuspegi integraleko laguntza, Nazio Batuen printzipioak kontuan hartzen dituen, funtsezkoa izan behar da adindunen beharrizanei erantzunen dieten politika publikoak diseinatzekoan.

Gogoan edukita 46/91 Ebazpenak bildutako printzipio gehienak, agerikoa da politikak bideratu behar direla pertsonak beren ingurune hurbilenean egotea bermatzera. Heldu beharreko erronka dugu, eta horretan aurrerabidea egiteko kalitatezko zerbitzuak zabaldu behar ditugu.

IMSERSOk 2011n prestatutako azterlan baten arabera, Espainian adindunen % 87,3k beren etxebizitzan geratzea nahiago dute. Lehenetsun hori mantentzen da mendekotasuna agertzen bada ere, % 78raino iritsita.

Baina ez dakigu zein diren Nafarroako adindunen interesak eta gogoak. Nafarroako errealitatea ezagutzeko gaurko eskaerak eta beharrizanak identifikatzen dituen diagnostiko bat behar dugu, oraingo zerbitzuak birbideratzeko eta hobetzeko informazio nahikoa jasoko duen lan bat.

Beste alde batetik, paradigmaren aldaketa bat dugu, non adindunak eskubideen subjektutzat hartu behar diren. Helburu horrekin, dagozkion tresnak eratu behar dira, parte hartze aktiboa izan dezaten eta haiengan eragiten duten politika publikoak prestatzeko ekarpena aurkez dezaten

Adindunen parte hartzea eta azterlanak prestatzea, kontuan hartzeko bi alderdi dira, zerbitzu publikoak hobetzera doan edozein planteamendu diseinatu nahi denean, eremu pribatutik kanpo zaintzak bermatzeko xedez.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Azterlan bat egiteko agin diezaion Errealitate Sozialaren Behatokiari, Nafarroan bizi diren adinekoen beharrizanak eta eskariak ezagutzeko.

– Adinekoen Kontseiluari protagonismo handiago eman diezaion eta parte hartzeko mekanismo gehiago ezar ditzan, adindunek beren eskariak helaraztea eta protagonista aktiboak izateko ahalbidetze aldera

– Plan bat presta dezan, etxerik gabeko laguntza zerbitzua indartzeko, prebentzio eta zahartze aktiborako programak zabaltzeko eta zerbitzu publiko berriak sortzeko, hala nola familiako etxeak eta etxebizitza babestuak, arreta integralagoa eskainiko dutenak eta egungo zerbitzuak hobetzera joko dutenak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko.**

*LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO ETA BARNEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetu dadin Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko honako mozio hau: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2021. eta 2022. urteetan, Donejakue urteak baitira, jarduerak

antola ditzan gazteekin Donejakue Bidea ezagutarazteko, haren zabalkundea egiteko eta hartan parte hartzeko". Mozioa 2021eko martxoaren 29. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00045).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol instalazioen mapa bat taxutu dezan, instalazio horiek dituzten beharrianak, alternatibak eta hobekuntza-plan bat garatzeko aukerak aztertzeko.**

**MOZIOA ERRETIRATZEA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu izanaz. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da kirol instalazioen mapa bat taxutu dezan, instalazio horiek dituzten beharrianak, alternatibak eta hobekuntza-plan bat garatzeko aukerak aztertzeko. Mozioa 2020ko martxoaren 10eko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/MOC-00040).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez, Nafarroako Parlamentuak, Emakumearen Nazioarteko Egunaren karietara, bizitzajasangarritasuna politika publikoen erdigunean jartzearen aldeko apustua egiten baitu.**

**ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Apustu egiten du bizitzaren jasangarritasuna politika publikoen erdigunean jartzearen alde eta lehentasunezko lan-ildo gisa sartzearen alde agenda politikoan eta tokiko garapena sustatzen duten ekintzen diseinuan.

2. Konpromisoa agertzen du bizitzaren jasangarritasuna ahalbidetzen duten eta nagusiki emakumeek egiten dituzten zaintza-lanei ikusgarritasuna eta balioa emateko.

3. Lan egingen du herritarrak sentsibilizatzeko banaketa justua eta bidezkoa lortzeko, familietan zaintza-lanen erantzunkidetasuna sustatuz”.

4. Mugimendu feministak arlo honetan eginiko ekarpenak eta lana aitortzen du.” (10-21/DEC-00013).

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan alokairuan bizi diren pertsonen kopuruari eta portzentajeari dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

– Zeintzuk dira alokairuan bizi diren pertsonen kopuruari eta portzentajeari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan azken datuak, adin-tarteen arabera xehakaturak? Zein da horietako bakoitzak alokairuagatik batez beste ordaintzen duen zenbatekoa?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitzaren alokairua ordaintzera bideratutako soldataren portzentajeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan alokairuko etxebizitza ordaintzera bideratzen den soldataren portzentajeari eta

zenbatekoari dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

– Zeintzuk dira alokairuko etxebizitza ordaintzera bideratzen den soldataren portzentajeari dagokionez Nafarroako Gobernuak dauzkan azken datuak, adin-tarteen arabera xehakatuta?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa.**

**MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan etxebizitzaren arloan emantzipatzeko zailtasunari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Zeintzuk dira emantzipatzeko zailtasunak dauzkaten herritarren portzentajeari buruz Nafarroako Gobernuak dauzkan azken datuak, adin-tarteen arabera xehakatuta? Halaber jakin nahi dut zeintzuk diren “Emanzipa” laguntza-programan parte hartzen duten gazteen portzentajeari buruzko azken datuak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, “ikasleen pisuak” deiturikoei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, “ikasleen pisuak” deiturikoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“Ikasleen pisuei” dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

– Zeintzuk dira Nafarroan aktibo dauden “ikasleen pisuen” kopurua dela-eta Nafarroako Gobernuak dauzkan azken datuak? Zenbat ikasle bizi dira horietan? Zein da alokairuagatik batez beste ordaintzen duten zenbatekoa?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an.

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiaren abenduaren 29ko 742/2020 Ebazpenaren bidez baimendu zen aurrekontua kreditu-gehikuntzaren bidez aldatzea. Zehazki, 747.545,10 euro handitu zen 320000-32100-4809-261403 partida –COVID-19, etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntza–, “COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntza-beharrizanei aurre egin behar izateagatik”. Kreditu-gehikuntza hori honako partida honen bidez finantzatu zen: 320000-32100-4809-261400 Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak.

Horri buruz, parlamentari honek honako hau jakin nahi du:

- Zeintzuk dira COVID-19a dela-eta etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntza horiek, aurrekontu-aldaketa justifikatzen dutenak?

- Honako datu hauek jaso nahi ditut: onuradunak –udalen arabera xehakatuak– eta batez beste jasotako zenbatekoak.

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, “España Puede” planari buruzkoa.

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, “España Puede” planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

“España Puede” planaren prestaketan Nafarroako Gobernuak egindako gastuari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

– Zein izan zen Nafarroaren parte-hartzea eta zer gastu hartu zuen bere gain planaren aurkezpenari begira?

Iruñean, 2021eko martxoaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## Galdera, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketak birfinantzatzeari buruzkoa.

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez onetsitako zorpetze-eragiketak birfinantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 17an hartutako erabakiaren bidez xedatu zen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikulua aipatzen dituen zorpetze-eragiketak egitea, 358.083.214,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

Haren lehenengo apartatuan honako hau ezarri zen:

“Xedatzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 61. artikulua aipatzen dituen zorpetze-eragiketak egitea, 358.083.214,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin; helburua da muga-egun arruntak birfinantzatzea (244.583.214,00 euro) eta ;113.500.000,00 euroko lehen tarte bat finantzatzea aurreikusitako defizitaren erreferentziari dagokionez”.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

– 358.083.214 euroko gehieneko zenbateko muga-egun arruntak birfinantzatzeko xedez Nafarroako Gobernuaren 2021eko otsailaren 17ko erabakiaren bidez egindako zorpetze-operazioek

aurrezpenik ekarriko al dute horien kostu finantzarioetan?

– Birfinantzatze-operazio horiek zer operaziori buruzkoak dira? Laster mugaeguneratzen eta kitatzeko xedez ordaindu behar diren operazioak dira

ala laster mugaegunerazen ez diren zorpetze-operazioak dira?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak emandako abal kobraezinen aurreikuspenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek

aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 80. artikuluan ezarritakoarekin bat, Gobernuak 2021eko otsailaren 15ean igorri zuen Nafarroako Gobernuak eta haren merkataritza-sozietateek 2020ko abenduaren 31n emandako abalen zenbatekoari eta ezauzgarri nagusiei buruzko txostena.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

– Zergatik eman da 2021erako milioi bat euroko kreditu bat, Zailtasunak dauzkaten enpresei laguntzeko, inbertsioa sustatzeko eta ekonomia bultzatzeko Programako abalak ematek hel litezkeen abal kobraezinei aurre egiteko?

– Programa horretan indarrean dauden bederatzi abaletatik zein edo zeintzuk deklaratu daitezke kobraezin eta, hortaz, egin beharko lieke aurre Gobernuak?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obren betetzea dela-eta INTIAk egindako dokumentuari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseko obren betetzea dela-eta INTIAk egindako dokumentuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztzen dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Lurralde Kohesiorako kontseilariak agerraldia egin zuen Parlamentuan 2020ko azaroaren 27an, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea dela-eta CANASA sozietatearen Administrazio Kontseiluak hartutako erabakiari buruzko azalpenak emateko. Agerraldi hartan INTIA sozietate publikoak egindako "txosten" bat zegoela aipatu zuen, zeinean aldeztu eginen bailitzateke aldi berean eraikitako lurpeko bi hodiren bidez egitea.

Abenduaren 30ean, kontseilariak aipatutako txosten horren kopia eskatu zuen gure talde parlamentarioak.

Orain dela gutxi, Lurralde Kohesiorako kontseilariak –ezen ez Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, haren menpe egon arren, ente instrumentala den aldetik, INTIA sozietate publikoa– sozietate horren logoak daramatzen dokumentu bat eman zigun, 2020ko uztailaren

24ko data daukana eta sinadurarik gabe datorrena: "Nafarroako Ubidearen 2. fasean dekalajerik gabeko hodi bikoitza egitearen komenigarritasuna".

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

1.- Gobernuko zer administrazio-organok edo kargudunek agindu zion INTIA sozietateari "Nafarroako Ubidearen 2. fasean dekalajerik gabeko hodi bikoitza egitearen komenigarritasuna"ri buruzko txosten bat egin zezan?

2.- Nori agindu zion txosten hori egin zezan, INTIAko zuzendari kudeatzaileari ala beste arduradun bati?

3.- INTIAko zuzendari kudeatzaileak dokumentu hori egiteko baimena eman al zuen?

4.- Nor da txosten horren egilea? Zergatik ez da txostena egin zuen pertsona identifikatzea ahalbidetuko lukeen sinadurarik ageri txostenean?

5.- Gobernuaren ustez, sinadurarik gabeko edo egilearen identifikaziorik gabeko dokumentu batek administrazio-txosten baten izaera al du?

6.- Ohikoa al da INTIAk egindako txostenetan egilerik ez agertzea ala, aitzitik, kasu hau bakarra al da?

7.- Zenbateko faktura egin dio INTIAk Nafarroako Gobernuari dokumentu hori egiteagatik? Zer departamenturi egin dio faktura?

8.- CANASAREN Administrazio-kontseiluaren 2020ko urriaren 27ko bileran Nafarroaren ordezkari gisa parte hartu zuten guztiek al zekiten dokumentu apokrifo hori zegoela?

9.- Bilera horretan edo Nafarroako ubidearen obren jarraipena egiteko Estatua-Nafarroa Bartzordeak eginiko bileraren batean aipatu al zuen Nafarroako ordezkariaren batek dokumentu hori zegoela? Eta dokumentuaren edukia?

Iruñean, 2021eko martxoaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren idazkari nagusiaren ofizio bitartez, aipatu Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2021eko otsailaren 11n hartutako erabakia igortzen da, Nafarroako Parlamentuari eskatzen diona hiru hautagaiko zerrenda bat bidaltzea Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-lanpostu bat betetzeko, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 330.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Orobat adierazten du aipatu zerrendan sartzen diren hiru juristen curriculumak ere bidali beharko direla zerrendarekin batera, bai eta karrera judizialean sartzeko gaitasun-baldintzak frogatzen dituen dokumentazioa ere, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren 303. artikulua aipatzen duena.

Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 330.4 artikulua ezartzen duenez, justizia auzitegi nagusietako sala zibil eta penalean hiru lanpostutik bat beteko du prestigio aitortua eta autonomia erkidegoan hamar urte baino gehiagoko jardun profesionala duen jurista batek, zeina Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak proposatuta izendatua izanen baita legebiltzarrak aurkeztutako hiru hautagairen artean.

Aipatu artikulua horretan ezarritakoari jarraikiz, eta kasuari buruzko erregelamenduzko aurreikuspenik ez dagoenez, zehaztu beharrekoa gertatzen da zer prozeduraren bidez apailatuko den Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari Nafarroako Parlamentuari aurkeztu beharreko hiru juristako hautagaitza. Horiek horrela, gai horren eztabaidarako arau bereziak eman beharra dago, Eledunen Batzarraren boto lotesleari jarraituz.

Horretarako, eta Legebiltzarreko Erregelamenduen 37.1.9 artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, hona ERABAKIA:

**Lehena.** Onestea Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetze aldera hiru juristako zerrenda hautatzeari buruzko arauak, jarraian adieraziak:

Lehena. Talde parlamentarioek eta foru parlamentarien elkarteak 2021eko martxoaren 25eko 17:30 baino lehenago proposatuko dizkiote Legebiltzarreko Mahaiari jurista-hirukotea osatzeko hautagaiak. Proposamen horiek gehienez ere hiru pertsona barne hartu ahalko dituzte, talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bakoitzeko.

Bigarrena. Hautagai-proposamenei curriculum profesional bat gehitu behar zaie, bai eta zinpeko deklarazio bat ere, non hautagaiak adierazten baitu karrera judizialean sartzeko gaitasun-baldintzak betetzen dituela, Botere Judizialaren Lege Organikoko 303. artikulua aipatuak; halaber, proposaturiko pertsonak emandako berariazko onarpena ere jasoko da. Aurkezturiko hautagaietakoan bat behin betikoz agertzen bada Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aurkeztu beharreko hirukotean, dokumentazioa aurkeztu beharko da, frogatzen duena bete egiten dituela jada aipaturiko Botere Judizialaren Lege Organikoko 303. artikuluan jasotako gaitasun-baldintzak.

Hirugarrena. Mahaiak, hautagaitza-aurkezpenerako epea amaituta, hautagaitzak aztertuko eta, kasua bada, aldarrikatuko ditu, egoki den osoko bilkuran gai-zerrendan jasoak izan daitezzen. Hautagaitzaren bat errefusatua izanez gero, helegitea aurkeztu ahalko zaio Mahaia-ri, eta hark modu arrazoituan ebatzi beharko du.

Laugarrena. Hautespenaren xedea jurista-hirukote bat osatzea izanen da, eta Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eginen da, paper bidezko bozketa sekretuaren bitartez. Paperetan, foru parlamentari-riek gehienez hiru izen idatzi ahalko dituzte.

Lehen bozketa bukatu eta gero emanen da boto eskuordetua. Hartara, talde parlamentario edo foru parlamentarien elkarte bakoitzaren bai-

tan, handienetik txikienera bozkatuko dute botoa eskuordetu duten pertsonak deituta.

**Bosgarrena.** Boto gehien eskuratu duten hiru hautagaiek lortuko dute hautaketa.

**Seigarrena.** Berdinketarik suertatuz gero, boto-kopuru bera lortu dutenen artean bozketa errepikatuko da.

**Zazpigarrena.** Baldin eta aurreko apartatuetako baldintzak beterik hirukotea osatu gabe geratzen bada, hautespena deuseztatzen joko da, eta arau

hauetan ezarritako prozedurari hasiera eman beharko zaio.

**Zortzigarrena.** Hirukotea hautatu ondoren, lehendakaritzaren bitartez helaraziko zaio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat banku-fundazioa izateari uzten dionean arau-egokiena zein izanen den aztertzeke Ponentzia.

### BARNE-FUNTZIONAMENDURAKO ARAUAK

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat banku-fundazioa izateari uzten dionean arau-esparru egokiena zein izanen den aztertzeke Ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak, zeinak ponentziak berak onetsi baitzituen 2021eko martxoaren 9an egintako bilkuran. Hona testua:

Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-esparru egokiena zein izanen den aztertzeke Ponentziak, zeina Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordearen baitan eratu baita, 2021eko martxoaren 9an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen:

Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat banku-fundazioa izateari uzten dionean arau-egokiena zein izanen den aztertzeke Ponentziaren barne-funtzionamendurako arauak onestea.

**Lehena.** Sorturiko ponentziaren xedea da Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat arau-egokiena zein izanen den aztertzea.

Behin txostena eginda, Legebiltzarreko Mahaiari igorriko zaio, aurkez litezkeen boto partikularrekin batera; eta Mahaiak Batzordeko kideei bidaliko die, eztabaidatu eta bozkatzeko.

**Bigarrena.** Hona ponentzia osatuko duten foru parlamentarien zerrenda:

- Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jauna (Navarra Suma).  
Ordezkoa: Marta Álvarez Alonso andrea

- María Inmaculada Jurío Macaya andrea (Nafarroako Alderdi Sozialista).  
Ordezkoa: Ainhoa Unzu Garate andrea

- Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (Geroa Bai).  
Ordezkoa: Jabi Arakama Urtiaga jauna

- Aranzazu Izurdiaga Osinaga andrea (EH Bildu Nafarroa).  
Ordezkoa: Adolfo Araiz Flamarique jauna.

- Mikel Buil García jauna (Podemos Ahal Dugu Nafarroa)  
Ordezkoa: Ainhoa Aznárez Igarza andrea.

- María Luisa De Simón Caballero andrea (Izquierda-Ezkerrako talde parlamentario mistoa).

**Hirugarrena.** Ponentziak aho batez María Inmaculada Jurío Macaya andrea hautatu du lehendakari. Ponentziako idazkari-lanetan jardunen da ponentziari laguntzen dion legelaria, edo haren ordezkoa.

**Laugarrena.** Ponentziak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko ditu erabaki guztiak. Horrela, ponentziako eledun-kide bakoitzaren talde parlamentarioak edo foru parlamentarien elkarteak zenbat foru parlamentari dituen, horrenbeste boto edukiko ditu eledun-kide horrek ponentzian.

**Bosgarrena.** Ponentziak laguntza eta lankidetzat eskatu ahalko dio Nafarroako Gobernuari, eta, Legebiltzarreko Lehendakaritzaren bidez, kargu eta funtzionario eskudunak ponentziara etor daitezkeen eskatu ahalko du, edo beharrezkoak diren

txostenak egin daitezten. Orobat eskatu ahalko du arloko beste aditu batzuk ere etor daitezten.

**Seigarrena.** Ponentziako kideen gehiengoak hala erabakitzen badu, ponentzian eginen diren agerraldiak hedabideei irekiak eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituak izanen dira. Pertsona edo entitate pribatuen kasuan, galdetu beharko zaie ea onartzen duten agerraldia egitea, eta haien mintzaldia publikoa egitea ere. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira. Hark, bilera-eskatzailerean mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hogeita hamar minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien

jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoaren erantzunarekin, zeina hamar minutukoa izanen baita gehienez. Parte-hartzaileraren batek hala eskaturik, lehendakariak galdera edo oharretarako beste txanda bat ireki ahalko du. Horiek egiteko bost minutu edukiko dituzte.

**Zazpigarrena.** Ponentziak agindu zaion lana bukatu arte eginen du lan, eta lan hori ponentzia eratu eta bi hilabeteko epean bukatu beharko du. Epe hori luzatzen ahalko da.

**Zortzigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias